



EBAZPENA, 2021eko AZAROAREN 5koa, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASTETXE PUBLIKOETAN ORDEZKAPENAK EGITEKO IZANGAIEN EZOHIKO ZERRENDAK IREKITZEN DITUENA

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenen premia guztiei aurre egiteko dauden zailtasunak kontuan hartuta, COVID-19 koronabirusak eragindako salbuespenezko egoerak larriagotuak, ordezkapenak egiteko ordezkogaien aparteko zerrendak irekitzen dira. Irekiera horretan, prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren eta hizkuntza-eskakizunaren baldintzak salbuesten dira, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren 7.d) eta 8.3.3 artikulua aplikatuz.

Horren arabera, eta otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuaren, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituenak, 10. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, hau,

EBAZTEN DUT

Lehena.- Ordezkogaien aparteko zerrendak irekitzea hiru lurralde historikoetako ikastetxe publikoetan. Ebazpen honen I. eranskinean zehazten da zein espezialitatetan irekitzen diren zerrendak eta zein baldintzak bete behar diren.

Bigarrena.- Deialdi honen parte-hartzea ebazpen honen II. eranskinean adierazten diren baldintzen arabera izango da.

ERREKURTSOAK

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeak, 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

Vitoria-Gasteizen, 2021ko azaroaren 5ean



I. ERANSKINA

**PRESTAKUNTZA PEDAGOGIKO ETA DIDAKTIKOAREN BALDINTZAPEAN ETA
IRAKASKUNTZAKO HIZKUNTZA-ESKAKIZUNIK GABE ***

MAILA: LANBIDE HEZIKETA		
ESPEZIALITATEAK	ESPEZIALITATEAREN KODEA	HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA
Arte grafikoetako produkzioa (**)	1545	
Makinak, zerbitzuak eta produkzioa	1559	

(*) **OHARRA:** Prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa eta irakaskuntzako 2. hizkuntza-eskakizuna edo 1. Hizkuntza-eskakizuna dutenek **EZ** dute irekiera honetan izena eman behar. Etengabe irekiak dauden zerrendetan apuntatu behar dira, irakasle.eus atariaren bidez, "Irekita mantentzen diren zerrendak." atalean.

(**) **OHARRA:** Inprimaketa grafikoko sistema hauetan (OFFSET, serigrafia, flexografia eta tanpografia) ezagutza aurreratuak dituztenek tituluarekin batera aurkeztu beharko dituzte, pdf bakar batean, ezagutza horiekin plaza jakin batzuk ordezkatzeko beharrak bete ahal izateko.

**PRESTAKUNTZA PEDAGOGIKO ETA DIDAKTIKOAREN ESKAKIZUNIK GABE
ETA IRAKASKUNTZAKO HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA JASOTA**

MAILA: LANBIDE HEZIKETA		
ESPEZIALITATEAK	ESPEZIALITATEAREN KODEA	HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA
Arte grafikoetako produkzioa (**)	1545	HE 2, HE 1
Makinak, zerbitzuak eta produkzioa	1559	HE 2, HE 1

(*) **OHARRAK:**

1) Prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa eta irakaskuntzako 2. hizkuntza-eskakizuna edo 1. Hizkuntza-eskakizuna dutenek **EZ** dute irekiera honetan izena eman behar. Etengabe irekiak dauden zerrendetan apuntatu behar dira, irakasle.eus atariaren bidez, "Irekita mantentzen diren zerrendak." atalean.

2) Salbuespen gisa, zerrendak irekitzen dira prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa egiaztatzeko eskakizunik gabe, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren 8.3.3 artikulua aplikatuz. Onartuak diren pertsonen baldintza hori betetzen duten hautagairik ez badago bakarrik deituko zaie (ikus II. eranskineko "Zerrendetan onartzeko baldintzak" atala).

(**) **OHARRA:** Inprimaketa grafikoko sistema hauetan (OFFSET, serigrafia, flexografia eta tanpografia) ezagutza aurreratuak dituztenek tituluarekin batera aurkeztu beharko dituzte, pdf bakar batean, ezagutza horiekin plaza jakin batzuk ordezkatzeko beharrak bete ahal izateko.



**PRESTAKUNTZA PEDAGOGIKO ETA DIDAKTIKOAREN ESKAKIZUNIK GABE ETA
IRAKASKUNTZAKO HIZKUNTZA-ESKAKIZUNIK GABE ***

MAILA: LANBIDE HEZIKETA		
ESPEZIALITATEAK	ESPEZIALITATEAREN KODEA	HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA
Arte grafikoetako produkzioa (**)	1545	

(*) OHARRAK:

1) Prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa eta irakaskuntzako 2. hizkuntza-eskakizuna edo 1. Hizkuntza-eskakizuna dutenek EZ dute irekiera honetan izena eman behar. Etengabe irekiak dauden zerrendetan apuntatu behar dira, irakasle.eus atariaren bidez, "Irekita mantentzen diren zerrendak." atalean

2) Salbuespen gisa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren 8.3.3 eta 7.d) artikulua aplikatuz, hizkuntza-eskakizunik eta prestakuntza pedagogiko eta didaktikorik gabe irekitzen da. Baldintza horiek betetzen dituen hautagairik ez badago soilik deituko zaie onartutako pertsoneri (ikus II. eranskineko zerrendetan onartzeko baldintzak atala).

(**) **OHARRA:** Inprimaketa grafikoko sistema hauetan (OFFSET, serigrafia, flexografia eta tanpografia) ezagutza aurreratuak dituztenek tituluarekin batera aurkeztu beharko dituzte, pdf bakar batean, ezagutza horiekin plaza jakin batzuk ordezkatzeko beharrak bete ahal izateko.

II. ERANSKINA

BALDINTZAK

1.- ESKAKIZUN OROKORRAK: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko aginduaren (2012-09-11ko EHAA) 7. artikuluan eta geroagoko aldaketetan xedatutakoak.

Euskarazko irakasleen hizkuntza eskakizunari dagokionez, irakasleen HE2 (C1 maila edo handiagoa) edo irakasleen HE1 (B2 maila) egiaztatu ahal izango da, kasuaren arabera. Maila horiekin bat datozen ziurtagiriak edo kreditatzeak kontsulta daitezke Hezkuntza Saileko web orrian: Langileak / Ordezkapenatarako izangaia – Irakasleak / Aparteko zerrendak irekitzea / On-line eskaera / "Eskabidea on-line betetzeko ohar inportanteak" estekan sakatuz.

2.- ESKAKIZUN ESPEZIFIKOAK: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko aginduaren (2012-09-11ko EHAA) 8.1 eta 8.2 artikuluan eta geroagoko aldaketetan xedatutakoak,

2.1 Titulazio akademikoari buruzkoak.

Espezialitate bakoitzerako eskatutako titulazioa egiaztatu beharko da, 2012ko abuztuaren 27ko aginduak Espezialitate eta titulazioen taulari buruzko III. Eranskinean xedatutakoaren arabera, zehazten diren ondorioekin. Taula hori kontsultatzeko (gaurkotuta, egindako aldaketak barne) hona jo beharko da:

<https://www.euskadi.eus/langile-irakasle-ordezkapenak-arauak/web01-a3holair/eu/>

Inprimaketa grafikoko sistema hauetan (OFFSET, serigrafia, flexografia eta tanpografia) ezagutza aurreratuak dituztenek tituluarekin batera aurkeztu beharko dituzte, pdf bakar batean, ezagutza horiekin plaza jakin batzuk ordezkatzeko beharrak bete ahal izateko.

2.2 Prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa

Prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren betekizuna (abenduarien 27ko ECI/3858/2007 Agindua) gaitasun pedagogikoaren ziurtagiriaren, espezializazio didaktikoko tituluaren edo prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa egiaztatzen duen masterreko titulu ofizialaren bidez egiaztatuko da.

Egiaztatzen dutenei 2008/2009 ikasturtea amaitu baino lehen irakaskuntza arautuko ikastetxe publikoetan edo pribatuetan bi ikasturte osotan edo, bestela, 12 hilabetez jarraian edo etenekin jardun dutela, behar bezala baimenduta, azaroaren 8ko 1834/2008 Errege Dekretuan araututako irakaskuntza-espezialitateetako maila eta irakaskuntzetan, irakaskuntza hori aipatutako prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren baliokide gisa aitortuko zaie.

2009ko urriaren 1a baino lehen lortutako honako titulu hauek dituztenak salbuetsita daude betekizun horretatik: maisu-maistra, oinarriko hezkuntza orokorreko irakaslea, lehen hezkuntzako maistra edo maistra, Pedagogiako eta Psikopedagogiako lizentziatura eta prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa barne hartzen duen lizentziatura edo titulazio baliokidea.

Titulazioa dela-eta abenduaren 27ko ECI/3858/2007 Aginduak araututako master-ikasketak egin ezin dituztenek, hau da, teknikari espezialista edo goi-mailako teknikari titulazioa dutenek, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 100.2 artikuluan eskatzen den prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa dutela egiaztatzen duen ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko dute. Betekizun horretatik salbuetsita daude 2014ko irailaren 1a baino lehen irakaskuntza arautuko ikastetxe publikoetan edo behar bezala baimendutako ikastetxe pribatuetan bi ikasturte osotan edo, bestela, hamabi hilabetetan (jarraituak edo etendunak) irakasle izan direla egiaztatzen dutenak.

3.- ADIN TXIKIKO BABESA:

Haur eta nerabeak indarkeriaren aurrean oso-osoan babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 57. artikuluan arabera, adingabeekin ohiko harremana izatea eskatzen duen edozein lanbide, ofizio eta jardueratan sartu eta jardun ahal izateko baldintza izango da sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako edozein deliturengatik epai irmo bidez kondenatua ez izatea. Delitu horiek azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren VIII. tituluaren tipifikatuta daude, eta azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren VII. tituluaren daude tipifikatuta. Horretarako, lanbide, ofizio edo jarduera horietan sartu nahi duenak egoera hori egiaztatu beharko du Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatibo bat aurkeztuz edo eskabidean bertan erantzukizunpeko

adierazpen bat betez, zeinean jasoko baita Hezkuntza Sailak Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean datuak kontsultatu ahal izateko berariazko baimena; horretarako, "Adingabearen Babesa" laukia markatu beharko da.

Hautagaiek aurkeztuko dute ziurtagiria, edo sailak kontsultatuko du (baldin eta online eskabidean erantzukizunpeko adierazpena bete badu, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean datuak kontsultatzeko berariazko baimena ematen duena), lanpostu bat betetzeko deitzen edo deitzen zaizkienean. Adierazitako delituengatik kondenatuak izan badira edo aipatutako ziurtagiria aurkezten ez badute (kontsultarako baimenik eman ez badute), prozedura honetan parte hartzeak ekar ditzakeen eskubide guztiak galduko dituzte.

ESKAERAK BETETZEA ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA (ESKAKIZUNAK)

1.- EPEA:

2021eko azaroaren 8tik 12ra, biak barne.

Aurkeztutako eskabideen kopurua ez bada nahikoa dauden ordezkapen-beharrei erantzuteko, irekiera honek, salbuespenezko izaeraz, bost eguneko epea izango du eskabideak aurkezteko.

2.- ESKAERA BETETZEA:()**

Eskaerak eskura egongo dira:

- www.irakasle.eus orrian / Irakaslegunea / “Administrazio-izapideak” eta “Zerrendak irekitzea” / “Zerrenda-Irekitze Berriak” – “Eskaera-aldi irekia dutenak”.
- www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-saila/ orrian / Lan-Arloak / Langileak / Hornikuntza-Irakasleak / Ordezkapenatarako izangaiak / Aparteko zerrendak irekitzea / Zerrendak irekitzea / 2021-11-05eko deialdia eta www.irakasle.eus estekan klik eginez.

Eskaera betetzeko (www.irakasle.eus helbidean), erabiltzailea (NANa) eta pasa-hitza sartu beharko dira. Pasa-hitzarik ez baduzu edo gogoratzen ez baduzu, aipatutako www.irakasle.eus orriaren bidez lortu ahal izango duzu, “pasa-hitza lortzea (edo berreskuratzea)” estekan.

On-line eskabidea erabat bete ondoren, itxi beharko da eta, horretarako, “Eskabidea amaitu eta agiria sortu” atala markatu beharko da, ondo balidatuta eta erregistratuta gera dadin. Eskabidea ixten ez bada, “Eskabidea amaitu eta agiria sortu” atala markatuz, eskabidea ez dela aurkeztu ulertuko da.

3.- BALDINTZAK EGIAZTATZEKO DOKUMENTAZIOA ENTREGATZEA: ()**

Adierazitako epean zerrendara/zerrendetara sartzeko exijitutako baldintzak egiaztatzekeo agiriak besterik ez da/dira entregatu beharko. Ordezkoagie buruzko aginduaren I. eranskinean adierazitako merezimenduak geroago aurkeztu beharko dira, deialdi honetan onartutako eta kanpoan utzitako pertsonen buruzko behin betiko ebazpena argitara eman ondoren aurrera eramango den urteko lehen birbarematze-prozesuan.

3.1.- Titulazio akademikoa/tituluaren tasak ordaindu izanaren ziurtagiria eta hizkuntzen egiaztapena **formatu elektronikoan** eta ondorengo moduan aurkeztuko dira:



Eskara on-line betetzeko unean, “Prestakuntza akademikoa-titulua” atalean, gaineratuko da. Aurkezten den titulua/ziurtagiria zein den adieraziko da eta, ondoren, “Titulua atxikitu” eremuaren bidez, eskaneatutako dokumentua, pdf formatuan, gehituko da (gaineratu beharreko fitxategi bakoitzaren tamaina ezin da 3 MBtik gorakoa izan).

Hizkuntza eskakizuna egiaztatzeari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko EGA eta HEO eta HABE ziurtagiriak ez dira entregatu beharko, Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan badaude. Halaber, ez da beharrezkoa izango Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan jasotako euskara-salbuespena egiaztatzea, Euskal Herriko Unibertsitatean lortutako unibertsitate-tituluei dagokienez.

Pertsona bakoitzak jakin dezan ea egiaztapenak edo salbuespenak Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan jasota dauden, kontsultatu ahal izango du aipatutako erregistroaren webgunean: <https://www.euskadi.eus/euskara-tituluen-eta-ziurtagirien-erregistro-bateratua/web01-a2etzeb/eu/>

Prozesu honetan parte hartzeak esan nahi du interesdunak baimena ematen diola Hezkuntza Sailari Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan adierazitako datuak kontsultatzeko.

Euskara-salbuespenari dagokionez, Mondragon eta Deustuko unibertsitateetako unibertsitate-tituluei dagokienez, dagokion unibertsitateak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da (apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren 2. eta 5. artikulua, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aitortzeari eta hizkuntza-titulu eta -ziurtagiriekin egiaztatzen salbuesteari buruzkoak).

3.2.- Baimenak: ondorengo baldintzak kontsultatzeko baimena eman ahal izango zaio Hezkuntza Sailari eta, kasu horretan, ez dira egiaztapenak aurkeztu beharko:

* Identitatea (NANA, NIE, beste batzuk).

* Delitu sexualak (Ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 57. artikulua).

Aurreko baldintzak kontsultatzeko baimena eman ezean, egiaztatzeko behar den dokumentazioa aurkeztu beharko da.

(**) Informatika-ekipamendurik ez duten pertsonak Eusko Jaurlaritzaren KZGunean egin ahal izango dute eskabidea, **aldez aurretik hitzordua** eskatuta, bai eta egiaztapenak on-line erantsi ere (baldin eta memoria edo disko gogor USB batean digitalizatuta eramaten badute). KZGuneen zerrenda eta kokapena honako helbide elektronikoa honetan dago eskuragarri: www.kzgunea.eus.

ZERRENDETAN ONARTZEKO BALDINTZAK

Onartutakoen zerrenda bereizian sartuko dira, kasuaren arabera, eta ordezkapenak egiteko soilik deituko zaie, zerrenda orokorrean edo bereizitako zerrendan hautagairik ez badago, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren (2012-09-11ko EHAA) 5. artikuluan eta ondorengo aldaketetan aurreikusitako lehentasun-ordenaren arabera.

Zerrenda bereizian onartuko izanak, bakar-bakarrik, dauden ordezkapen-premiei aurre egiteko mugatuko da, baldin eta lehentasun handiagoa duen pertsonarik ez badago, eta horrek ez du sortuko



etorkizuneko hautaketa-prozesuetan parte hartzeko eskubiderik deitutako espezialitateari dagokion irakasleen kidegoko karrerako funtzionario gisa sartzeko. Kasu horretan, nolana ere, baldintza hori bete beharko da.

Zerrenda bereizia arautzen duen araudia honakoa da: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren (2012-09-11ko EHAA) 5, 8.3.3, 14.3, 24.1 eta 32 artikulua eta ondorengo aldaketak.

ORDENA

Irekiera honetan eraturako zerrendak, dauden zerrenden barruan antolatuko dira, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren 5. artikuluan aurreikusitako lehentasun-ordenaren arabera.

Adierazitako zerrenda bakoitzaren barruan, pertsonak alfabetikoki, izen-deituren arabera, ordenatuko dira, “O” letratik hasita, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2021eko urriaren 29ko ebazpenak, 2021/2022eko ikasturtean ordezkapenak egiteko ordezkogaiak kudeatzeko prozesuan, baita ikasturte horretan zehar dei daitekeen beste edozein aukeratze-prozesutan ere, alfabeto-ordena zehaztuko duen letra erabakitze zozketaren emaitza argitara ematen duenak, xedatutakoaren arabera.

Zerrenda hauetako pertsonen parte hartuko dute, deialdi hau ebatzi ondoren, aurrera eramango den lehen birbarematze-prozesuan parte. Birbarematze-prozesu horretan, zerrenda bereizietan sartutako pertsonak zerrenda mota horietan mantenduko dira. 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren 24. artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen dituztenean, zerrenda orokorrean sartu ahal izango dira (ordezkapen beharrei aurre egiteko hautagaien lehentasuneko zerrenda).

ZERRENDEN ARGITARAPENA

Onartutakoen eta kanpoan utzitakoen behin-behineko eta behin betiko ebazpena argitara emango da:

- www.irakasle.eus orrian / Irakaslegunea / “Administrazio-izapideak” eta “Zerrenda-irekiera” / “Zerrenda-Irekitze Berriak” – “Eskaera-aldi itxia dutenak (Prozesuaren segimendua)” estekan klik eginez.
- www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila/ orrian / LAN-ARLOAK -> Langileak -> Hornikuntza-Irakasleak -> Ordezkapenatarako izangaiak -> Aparteko zerrendak irekitzea -> Zerrendak irekitzea -> 2021-11-05eko deialdia, eta www.irakasle.eus estekan klik eginez.